

# TARTALO

## (Euskal ipuin zaarra)

Gorbeia mendiko, Arrabako larran, antxina baten Basajauna bizi ei zan. Aren izena TARTALO.

Tartalo pago tantai, zabal baten antzeko gizon ikaragarria zan. Gorputza bost ardi-narrutan estalduten eban-eta. Enbor erdian idi-narruzko garriko zabala eta eskuetan makil astuna eroaten eban. Bekoki erdian begi bakar andia eukan.

Gorbeia mendian batetik bestera ibili oi zan.

Beinola baten, Gorbeia mendiko artzain bateri Tratalok ardi bat ostu eutson, eta artzaina, bildur barik, basajaunaren atxulora sartu zan. Baina ez eban Tartalo atxulo barruan aurkitu.

Laster agertu zan atxulo aurrean Tartalo bere artalde andia. Iru mila ardi ziran eta, artxoak eta bildotsak zenbatu barik.

Tartalok ardiak eta arkumeak bra-braka atxuloan sartu ebazanean, arpearen agoa arri aundi astun batez itxi eban.

Sua iziotu eban, eta artzaina barruan ikusi ebanean, amorru bizian, orroaka, basa-zezenen antzera, itandu eutson:

— Kontxo, gizontxu, nondik sartu az, bada? Zer galdu dok emen nire atxuloan? Gaur gauean zer jana bajaukoat. Ire aragi bigunak biar jango joadaz.

Eta atxulotik iges ez egiteko, artzainari atzamar txikian eraztun bat jantzi eutson, beti, gau ta egun ixildu barik, gedar egiten ebana:

Emen nago! Emen nago! Emen nago!...

Tartalok esnea egosi eban eta ardi-esne beraz bete-bete egin zanean, ardien artean etzun eta besoak eta anak zabal-zabal ipinita, lozorro astunean lotu zan.

Artzainak, orduan, ixil-ixilik, sugarretan ilenti bat berobero egin, eta bere beso bietako indar guztiaz, lo-arrantzaka egoanari, dzast! begi-begitik sartu eutson.

Itzartu zanean, Tartaloren orroek atxei be dardara eragiten eutseen. Aren aieneak, aren gedarrak eta garrasiak!.

Artzaina arrapatu ba eban, arrapatu, berreun zati egin-go eban!.

Urrengo egunean, eguzkia atx ganetik agertu zanean, Tartalok ardiak, gura ta guraz, larrara atara bear izan eban, bedarra jaten emotera atara be.

Artzainak, ardiekaz naastean, andik urteteko asmoa eukan, baina Tartalo, arritzarra kenduta, atxuloko agoan jarri zan. Artzaina, urtenkeran, zeozelan arrapatuteko asmotan edo.

Artzain bizkorak, orduan, atzamar txikia bost ardi-narrutan biribildu eban, olan eraztunaren gedarrak asagokoak bailiran, Tartaloren belarrietara motel-motel elduten ziran.

Asmaketa zorrotz oneri esker, artzainak basajaunaren esku artetik iges egin aal izan eban.

Artzainak atxulotik iges egin eutsona Tartalok igarri ebanean atzetik arineketan jarraitu eutson. Baina artzainak, bere burua estualdian ikusita, atzamar txikia moztu eta eraztun ta guzti itsasora jaurti eban.

Tartalo ituak, eraztunaren atzetik, itsaso sakonera blaut! egin eban eta Bizkaiko Itsasoan ito egin zan.

(eri ipuina)

Iniaki MARTIARTU  
1996ko irailean

### Berbalapikoa

larra = landa, zelai.

tantai = anditzar, kankailu.

atxulo = arpe, koba.

artxo = arkume, jaio barri dan ardia.

bildots = arkume, urte bete baino gazteagoa dan ardia.

bra-bra = ardiei deituteko egiten dan ago-zaratea.

arpe = atxulo, koba.

iziotu = biztu.

az = zara (itanoa).

dok = dozu (itanoa).

bajaukoat = badaukat (itanoa).

joadaz = dodaz (itanoa)

loarrantzaka = lozurungaka, lokorronkaka.

ilenti = erdi en-eta dagoan egur zatia.

garrasi = gedar kirrintzikaria, deader kirrinkaria.

bailiran = balitzaz lez.



**Eusko Jaurlaritzaren  
Laguntzaz.**

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.